

2020KO MARTXOAREN 3AN UDALBATZARRAK EGINDAKO OHIZKO BILKURAREN AKTA.

Udaletxeko Bilkura Aretoan, idazpuruko eguneko arratsaldeko seiak eta hogeita hamar minutu direnean, Alkateak deituta eta lehen deialdian, Udalbatzarra elkartzen da, jarraian adierazten gai zerrendarekin ohizko bilkura egiteko:

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2020KO URTARRILAREN 21EKO BILKURAREN AKTA).

2.- ZEGAMAKO LANDA IZAERAKO UDAL ONDASUNEN INBENTARIOAREN ZUZENKETA ETA EGUNERAKETAREN ONARPENA.

3.- ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOKO OINARRIZKO IRTENBIDEAK ELKARRI EMATEKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORREKIN 2017KO MARTXOAREN 24AN ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN 2018KO ABENDUAREN 5EAN SINATU DITUEN LANKIDETZA-HITZARMENEKIKO ATXIKIMENDU PROTOKOLOA.

4.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ADMINISTRAZIOAREN ETA ZEGAMAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, HERRI ADMINISTRAZIOEN ARAUBIDE JURIDIKOAREN ETA ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEGAREN AZAROAREN 26KO 30/1992 LEGEAREN 38.4.B ARTIKULUAN EZARRITAKOA BETETZEKO (EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ADMINISTRAZIOARI ZUZENDUTAKO IDAZKIAK UDAL ERREGISTROETAN AURKEZTEKO LANKIDETZA).

5.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

6.- GALDE ERANTZUNAK.

ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

ALKATE-LEHENDAKARIA

Joseba Izagirre Arozena jn. (Zegama Lantzen).

ZINEGOTZIAK

Izaskun Igoa Arizcorreta and. (Zegama Lantzen).

Ibon Zabaleta Urbizu jn. (Zegama Lantzen).

Iñaki Xabier Albizu Ormazabal jn. (Zegama Lantzen)

Julian Iraola Lapizondo jn. (Zegama Lantzen).

Imanol Garmendia Iruretagoiena jn. (EH Bildu).

Iosune Azurmendi Telleria and. (EH Bildu).

Aritz Agirre Garikano jn. (EH Bildu).

Jose Luis Azurmendi Larrea jn. (EH Bildu).

EZ ETORRITAKO UDALBATZARKIDEAK:

Bilkurakide guztiak bertaratu dira.

Idazkaria, Igor Alustiza San Vicente.

1.- AURREKO BILKUREN AKTEN ONARPENA (2020KO URTARRILAREN 21EKO BILKURAREN AKTA).

Alkateak, 2020ko urtarrilaren 21eko bilkuren aktan jasotakoari buruz nolabaiteko oharpenik adierazi nahi duten galdetzen die batzar-kideei.

Ez da inolako oharpenik adierazten, eta beraz, aho batez onartutzat gelditzen da adierazitako aktak.

2.- ZEGAMAKO LANDA IZAERAKO UDAL ONDASUNEN INBENTARIOAREN ZUZENKETA ETA EGUNERAKETAREN ONARPENA.

Espedientea ikusirik.

Zegamako Udalak, landa izaerako Udal Ondasunen Inbentarioa bideratu zuen.

Burutuako lanaren onarpena, zuzenketa eta eguneraketa batzuen eraginez bideratu gabe geratu zen.

Une honetan, Alkateak proposatzen du gauzatutako eta gaur egungo inbentarioaren onarpena bideratzea. Era berean, alegazioak aurkezteko, lau hilabeteko epaldi luze bat jartzea proposatzen da.

Landa ondasunen inbentarioa honako agiriak osatzen dute (II. Tomoa, 1C landa lursailak; III. Tomoa, 3 landa bideak; IV Tomoa, 3 landa bideak; V Tomoa 3 landa bideak, 4 ur-bilketak 5 beste eskubideak).

Inbentarioa ikusirik, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko lau zinegotzien aldeko botoekin, gehiengo osoz, honako hau erabakitzen du:

Lehendabizi: Zegamako landa izaerako udal ondasunen inbentarioaren zuzenketa eta eguneraketa hasiera batez onartzea (II. Tomoa, 1C landa lursailak; III. Tomoa, 3 landa bideak; IV Tomoa, 3 landa bideak; V Tomoa 3 landa bideak, 4 ur-bilketak 5 beste eskubideak).

Bigarrena: Eguneratze hori, jendaurrean jartzea lau hilabetez, dagokion iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratuz, interesatuek berau aztertu, eta hala badagokio, bidezko alegazioak aurkeztu ditzaten.

Hirugarrena: Erabakia behin betiko onartutzat joko da, alegaziorik ez bada aurkezten jendaurreko informazio epealdiaren barruan.

3.- ADMINISTRAZIO ELEKTRONIKOKO OINARRIZKO IRTENBIDEAK ELKARRI EMATEKO EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK ESTATUKO ADMINISTRAZIO OROKORREKIN 2017KO MARTXOAREN 24AN ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREKIN 2018KO ABENDUAREN 5EAN SINATU DITUEN LANKIDETZA-HITZARMENEKIKO ATXIKIMENDU PROTOKOLOA.

Espedientea ikusirik.

Alkateak jakinarazten du, udalari administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbideak elkarri emateko hitzarmenetara atxikitze gomendia helarazi zaio

Ondorio horietarako, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin sinatutako lankidetzahitzarmen hauekiko atxikimendua eskatzen da:

- Estatuko Administrazio Orokorrarekin 2017ko martxoaren 24an sinatutako lankidetzahitzarmenarekiko, lehenengo klausularen 2. atalean ezarritakoari jarraituz. Hitzarmen hori 2017ko apirilaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 76 zenbakikoan, argitaratuta dago.

Adierazitako lehenengo klausulan adierazitakoaren arabera, hitzarmen honen xedea baldintza orokorrak ezartzea da, urriaren 1eko 29/2015 eta 40/2015 legeetan administrazio elektronikoa buruz xedatutakoa betetzeko, alderdi sinatzaileek ematen dituzten administrazio elektronikoko oinarrizko soluzio teknologikoen aprobetxamendu komunerako.

Oinarrizko soluzio teknologikoak elkarri emateko, hitzarmen honek ezartzen dituen arauak beteko dira, eta ez da kontraprestazio ekonomikorik izango.

Halaber, hitzarmen honen xedea da Euskal Autonomia Erkidegoak hitzarmen honen bigarren klausulan edo etorkizunean hura eguneratu edo aldatuko dutenetan zerrendatutako soluzio teknologikoetan interesa duten toki-erakundeek sarbidea zer baldintzatan emango dien ezartzea, behar den akordioa sinatuta. Akordioak, edonola ere, hitzarmen honetan ezarritako betebeharrak betetzen direla bermatuko du.

- Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatutako lankidetzahitzarmenarekiko, lehenengo klausularen 2. atalean ere ezarritakoa jarraituz. Hitzarmen hori 2018ko abenduaren 21eko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, 245 zenbakikoan, argitaratuta dago.

Hitzarmen honen xedea da zehaztapen eta baldintza orokorrak finkatzea, sinatzaileek eta beraien menpeko edo beraiei lotutako erakundeek ematen dituzten administrazio elektronikoko oinarrizko irtenbide teknologikoak, bigarren klausulan azaldutakoak, hain zuzen, batera aprobetxa ditzaten.

Hitzarmena sinatzearen helburuak honako hauek dira: kudeaketa publikoaren eraginkortasuna hobetzea, baliabide eta zerbitzu publikoen baterako erabilera erraztea,

onura publikoko jarduerak egiten laguntzea, aurrekontu-egonkortasunari eta finantza-iraukortasunari buruzko legeak betetzea eta administrazio-bikoiztasunak ezabatzea. Horretan, honako artikulua hauek bete beharko dira: urriaren 1eko 40/2015 Legearen 48.3 artikulua; Toki-araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 57. artikulua, Toki-administrazioaren Arrazionalizazio eta Iraunkortasunari buruzko abenduaren 27ko 27/2013 Legearen lehenengo artikuluan jasotako idazkeraren arabera; eta Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legearen 100. artikulua.

Hitzarmen honen xedea, halaber, idazki honen l. eranskinean zehazten den protokoloan azaldutako prozedura zehaztea da. Prozedura horren bidez, hitzarmen honen bigarren klausulan zerrendatutako soluzio teknologikoetan edo etorkizunean eguneratzen edo aldatzen diren interesak duten toki-erakundeei sarbidea emango die Foru Aldundiak. Foru Aldundiak, edonola ere, hitzarmen honetan ezarritako betebeharrak betetzen direla bermatuko du.

Gipuzkoako Administrazio Publikoaren informatika zerbitzuen foru sozietatetik –IZFE– helarazitako atxikimendu protokoloa ikusirik, Alkateak proposatzen du hau bideratzea.

Proposamenaren xedea eta helburuak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko lau zinegotzien aldeko botoekin, gehiengo osoz, honako hau erabakitzen du:

Lehen.- Zegamako Udalak Udalak hitzarmena ezagutu eta erreparorik gabe onartzen du, harekiko atxikimenduari dagozkion alderdi guztietan; horrez gain, konpromisoa hartzen du hitzarmenean jasotako betebeharrak betetzeko, alderdi sinatzaileek ematen dituzten administrazio elektronikoaren oinarriko irtenbide teknologikoak (bigarren klausulan zerrendatu dira) edo etorkizunean eguneratu edo aldatzen direnak eskuratzeari eta erabiltzeari dagokienez. Horrez gain, bere eskumenen arloan, bere gain hartzen ditu hitzarmenean Gipuzkoako Foru Administrazioarako ezarritako betebeharrak.

Bigarrena.- Horren guztiaren ondorioz, honako hau eskatzen du:

Zegamako Udalako Udalaren atxikimendua, administrazio elektronikoaren esparruko oinarriko irtenbideak elkarri emateko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin sinatutako aipatutako hitzarmenekiko. Hain zuzen ere:

- *Estatuko Administrazio Orokorrarekin 2017ko martxoaren 24an sinatutako hitzarmenarekiko, lehenengo klausularen 2. atalean ezarritakoari jarraituz.*

- *Gipuzkoako Foru Aldundiarekin 2018ko abenduaren 5ean sinatutako hitzarmenarekiko, lehenengo klausularen 2. atalean ere ezarritakoari jarraituz. Hauek dira aipatutako administrazio elektronikoaren zerbitzuen katalogoan jasotzen diren irtenbide teknologikoak:*

- Euskal administrazio publikoen komunikazio-sarea
Red de comunicaciones de las administraciones públicas vascas
- Identifikazio, autentifikazio eta sinadura elektronikoko baliabideak kudeatzeko zerbitzuak
Servicios de gestión de medios de identificación, autenticación y firma electrónica
- Euskadiko Administrazioen Segurtasunerako eta Elkarrengarritasunerako

Nodoa (NISAE)

Nodo de Interoperabilidad y Seguridad de las Administraciones de Euskadi (NISAE)

Ordainketa-pasabidea.

Pasarela de Pagos

Hirugarrena.- Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Udal honetako Alkate-Lehendakaria den Joseba Izagirre Arozenari adierazitako hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

Laugarrena.- Erabaki hau, IZFE-ri, Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari eta dagozkion erakundeei jakinaraztea.

4.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ADMINISTRAZIOAREN ETA ZEGAMAKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, HERRI ADMINISTRAZIOEN ARAUBIDE JURIDIKOAREN ETA ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN AZAROAREN 26KO 30/1992 LEGEAREN 38.4.B ARTIKULUAN EZARRITAKOA BETETZEKO (EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ADMINISTRAZIOARI ZUZENDUTAKO IDAZKIAK UDAL ERREGISTROETAN AURKEZTEKO LANKIDETZA).

2011ko abenduaren 5ean, Zegamako Udalak eta Eusko Jaurlaritzak Herri-Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 38.4.b) artikulua babesean, hitzarmen bat sinatu zuten Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioari zuzendutako idazkiak udal erregistroetan aurkezteko.

Hitzarmen horren bidez, herritarrek EAeko Administrazioari eta haren menpeko edo hari atxikitako berezko nortasun juridikodun zuzenbide publikoko erakundeei zuzentzen dizkieten eskaera, idazki eta jakinarazpenak Zegamako Udalaren erregistroetan aurkeztu ahal izango dituzte.

Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailetik, adierazitako hitzarmenaren indarraldia 2020ko martxoaren 15ean amaituko dela jakinarazi da.

Bestalde 1992/30 Legea indargabetuta geratu den bada Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 2015/39 Legearen bidez, adierazi nahi da kontuan hartu behar dela azken lege honen laugarren xedapen iragankorrak ezartzen duena: "Ahalordetzeen erregistro elektronikoa, erregistro elektronikoa, Administrazioaren Irispide Puntu Elektroniko Orokorra eta artxibo elektronikoa bakarrari buruzko xedapenak indarrean jartzen ez diren bitartean, administrazio publikoek gai horiei buruz indarrean diren kanal bitarteko edo sistema elektronikoa berak mantenduko dituzte, pertsonak administrazioekiko harremana elektronikoki izateko duten eskubidea bermatzeko".

Eta 2015/39 Legearen azken xedapenetako zazpigarrena (abuztuaren 33ko 2018/11 Errege Lege Dekretuaren 6. artikuluan emandako idazkuntzan) erregistro elektronikoa buruzko xedapenak 202ko urriaren 2tik aurrera izango dituztela ondorioak ezartzen duenez, idatzi honen bidez, jakinarazten da helburu bera duen lankidetzaren hitzarmen berri bat sinatzeko aukera dagoela, aipatutako data arte edo Legearen erregistro elektronikoa buruzko xedapenak benetan indarrean jartzen diren arte indarra izango duena, eta 4 urteko muga izango duena Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean kontatzen hasita.

Horrenbestez, Alkateak proposatzen du adierazitako hitzarmen onartzea, eta honen testuak honela dio hitzez hitz:

“ HITZARMENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ADMINISTRAZIOAREN ETA ZUMARRAGAKO UDALAREN ARTEKOA, HERRI ADMINISTRAZIOEN ARAUBIDE JURIDIKOAREN ETA ADMINISTRAZIO PROZEDURA ERKIDEAREN AZAROAREN 26KO 30/1992 LEGEAREN 38.4.B) ARTIKULUAN EZARRITAKOA BETETZEKO (EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAREN ADMINISTRAZIOARI ZUZENDUTAKO IDAZKIAK UDAL ERREGISTROETAN AURKEZTEKO LANKIDETZA)

Vitoria-Gasteiz,.

Batetik, Josu Iñaki Erkoreka Gervasio jauna, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua, Euskal Autonomia Erkidegoaren ordezkari gisa, eta bestetik,

Joseba Izagirre Arozena jauna, Zegamako Udaleko alkate-lehendakaria, udal horren ordezkari gisa.

Bi ordezkariok, honako lege-xedapen hauek emandako eskumenak erabiliz dihardute: batetik, Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen apirilaren 11ko 71/2017 Dekretua eta Gobernu Kontseiluak, Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4.b) artikuluan aurreikusitako hitzarmenak gauzatzeko, 1996ko urriaren 29an hartutako Erabakia; eta bestetik, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legea eta Toki Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenen testu bategina, apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuak onartutakoa.

Bi aldeek, elkar onartzen dute eta elkarri aitortzen diote honako hitzarmen hau gauzatzeko legezko gaitasuna.

Horretarako hau ADIERAZTEN DUTE:

30/1992 Legearen 38.4.b) artikulua araberak, Administrazio Publiko zuzendutako eskaera, idazki eta jakinarazpenak edozein administrazio-organotako erregistroan aurkez daitezke, dela Estatuko Administrazio Orokorrekoa, dela autonomia-erkidegoetako administrazioetakoak, dela probintzietako diputazioen, kabildoen eta uharteetako kontseiluen administrazioetakoak, dela Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 121. artikulua aurreikusten dituen udalerrietako udaletakoak, dela gainerako Toki-Administrazio erakundeetakoak, betiere, azken kasu honetan, dagokion hitzarmena sinatu bada.

Aipatutako lege-xedapen hori betetzea eta herritarren eta administrazio publikoaren arteko harremanak erraztea da gaur sinatzen den hitzarmen honen helburua; izan ere, administrazio sinatzaileek lehendik zuten asmoa gauzatu egiten da hitzarmen honen bidez, hau da, herritarrek EAeko Administrazioaren edozein organo edo erakunderi zuzendu nahi dizkieten agiriak Zegamako Udalaren

erregistroetan, eraginkortasun osoz, aurkeztu ahal izatea.

Gauzak horrela, arestian aipatutako administrazioek hitzarmen hau sinatzen dute; hauek dira hitzarmenaren KLAUSULAK

Lehenengoa.— Hitzarmen honen helburua da, EAEko Administrazioari eta haren menpeko edo hari atxikitako berezko nortasun juridikodun zuzenbide publikoko erakundeei herritarrek zuzentzen dizkieten eskaera, idazki eta jakinarazpenak Zegamako Udalaren erregistroetan aurkeztu ahal izatea.

Bigarrena.— EAEko Administrazioari eta haren menpeko edo hari atxikitako lotutako berezko nortasun juridikodun zuzenbide publikoko erakundeei herritarrek zuzentzen dizkieten eskaera, idazki eta jakinarazpenak Zumarragako Udalaren erregistroetan aurkezten direnako data hartuko da kontuan interesatuek epeak betetzeari dagokionean; ildo horretatik, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 30. artikuluan ezarritakoari jarraituko zaio.

Hirugarrena.— Zegamako Udalak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

a) EAEko Administrazio organoei edo administrazio horren menpeko edo hari atxikiriko zuzenbide publikoko erakundeei herritarrek zuzentzen dizkieten eskaera, idazki eta jakinarazpenak bere erregistroetan onartzea.

b) EAEko Administrazioari zuzendutako eskaera, idazki eta jakinarazpenei bere erregistroetan sarrera ematea, eta honako hauek idatzita gordetzea: sarrera-zenbakia, izenburua, idazkia jaso zeneko eguna eta ordua, interesdunaren datuak, eta, hala dagokionean, idazkia bidali duen organoaren izena, edo bidaltzen zaion pertsona edo organoaren izena; behar denetan, idazki edo jakinarazpenaren laburpena ere jasoko da; hori guztia 30/1992 Legearen 38.3 artikuluan eta bigarren xedapen gehigarriaren arabera.

c) Agiriok erregistroan jaso eta, beranduen, handik bi egunera, dagozkien organo edo erakundeei zuzenean bidaltzea, betiere, irteera-data idatzita egongo delarik. Agiriok ahalik eta azkarren jaso daitezten, ahal delarik behintzat, egoki iritzitako teknika eta bitarteko elektronikoa, informatikoa eta telematikoa erabiliko dira; betiere, 30/1992 Legearen 45. artikuluan eta horrekin bat datozen gainerako manu eta xedapenetan aurreikusten diren berme eta betebeharrak kontuan izanik.

Laugarrena.— EAEko Administrazioak honako konpromiso hauek hartzen ditu:

a) Zegamako Udalari, EAEko Administrazioa osatzen duten eta haren menpe edo hari atxikita dauden organo eta erakundeei buruzko informazioa ematea, bai eta informazio hori, etengabe, eguneratzea ere.

b) Zegamako Udalari baliabide egokiak ematea, berorrek, EAEko Administrazioari eta haren menpeko edo hari atxikitako zuzenbide publikoko erakundeei buruzko informazioa eman diezaien herritarrei.

c) Erregistroak antolatzeko eta informatizatzeko laguntza tekniko eta behar den lankidetzaz eskaintzea.

Bosgarrena.- Hitzarmen hau sinatzen duten administrazioek euren erregistroak informatizatzeko neurriak hartzen badute, elkarri jakinarazteko konpromisoa hartzen dute, betiere, neurriak interkomunikazio sistemen bateragarritasunari eragiten badiote; horrelakoetan, administrazio sinatzaileek aipatutako bateragarritasuna eta euren erregistroen arteko koordinazioa bermatzeko hitzarmena sinatuko dute.

Seigarrena.- Hitzarmen honen indarraldia Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legean erregistro elektronikoa buruz jasotako xedapenak indarrean jartzean amaituko da, eta muga 4 urtekoa da Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean zenbatzen hasita. Hitzarmena arrazoi hauek direla kausa ere iraungiko da: administrazio sinatzaileek adostasunez hala erabakitzen badute; edota administrazioetako batek, beste administrazioak hitzarmenean ezarritako betebeharrak nabarmenki urratu dituelako, bere aldetik hala erabakitzen badu.

Hitzarmen honen formalizazioa nahiz iraungipena, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Zegamako Udaleko iragarki taulan argitaratuko dira.

Zazpigarrena.- Hitzarmen honen interpretazioa eta aplikazioa direla-eta sor daitezkeen zalantza eta eztabaiden inguruko erabakiak hartzea, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuari dagokio; erabakiak betearazleak izango dira eta haien aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsua aurkeztu ahalgo da.

Ados daudela adierazteko, hala jasota gera dadin eta dagozkion ondorioak izan ditzan, idazpuruan esandako pertsona interesdunek jatorrizko bi ale sinatzen dute.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua, JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO. Zegamako Udaleko alkate-lehendakaria, JOSEBA IZAGIRRE AROZENA”.

Hitzarmenaren xedea eta helburuak aztertu eta eztabaidatu ondoren, Udalbatzarrak, Zegama Lantzen taldeko etorritako bost zinegotzien eta EH bildu taldeko lau zinegotzien aldeko botoekin, gehiengo osoz, honako hau erabakitzen du:

Lehen.- “Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 38.4.B artikuluan ezarritako betetzeko (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari zuzendutako idazkiak Udal Erregistroetan aurkezteko lankidetzaz), EAEko Administrazioaren eta Zegamako Udalaren arteko hitzarmena,” onartzea eta, ondorioz, Eusko Jurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailarekin hau sinatzea.

Bigarrena.- Toki Jaurbidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 21.1.b) artikuluan ezarritakoaren arabera, Udal honetako Alkate-Lehendakaria den Joseba Izagirre Arozenari adierazitako hitzarmena sinatzeko ahalmena ematea.

Hirugarrena.- Hitzarmenaren formalizazioa Udaleko iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Laugarrena.- Erabaki hau Eusko Jaurlaritzako Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailari jakinaraztea.

5.- ALKATETZAREN ERABAKIAK.

Idazkariak, azkeneko ohiko bilkuratik, Alkateak hartutako ebazpenen berri ematen du:

- 014/0220 erabakia, otsailaren 11koa, etxean barne lanak egiteko baimena emanez.
- 015/0220 erabakia, otsailaren 20koa, Elizalde 4-behea etxeko lokalan, autokarabana-gordeleku jarduera has daitekeela jakinaraziz.
- 016/0220 erabakia, otsailaren 20koa, San Bartolome Kontsumo Kooperatibari, Elizalde 5 kalean lanak bideratzeko baimena emanez.
- 017/0220 erabakia, otsailaren 20koa, egurra ateratzeko lanak bideratzeko herri bidea erabiltzeko baimena emanez.
- 018/0220 erabakia, otsailaren 25ekoa, 2019/5 kreditu aldaketaren espedientea behin-betikoz onartutzat emanez.
- 019/0220 erabakia, otsailaren 27koa, 6 zenbakidun fakturen erlazioa (otsaila 2); guztira 116.127,28 euro, onartuz.
- 01/0320 erabakia, martxoaren 2koa, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan hobarien onuradunak onartuz (familia ugarien titularrak direnak).
- 02/0320 erabakia, martxoaren 2koa, Trakzio Mekanikozko Ibilgailuen gaineko Zergan hobarien onuradunak onartuz (familia ugarien titularrak direnak).

6.- GALDE ERANTZUNAK.

- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu), Tolosako Hiltegi Mankomunatuaren juntaren azken bi bileren berri ematen du. Lehenengo bilerara joaterik ezin izan zuela adierazten du, bertan juntaren aldaketa eman zela adieraziz. Aurrekontuen onarpena ere bideratu dela azaltzen du (udalen aportazioak aipatuz, Zegamako erabiltzaileak badaudela azaltzen da). Gai honi buruz aurreko aipamen batzuetan adierazitakoaren arabera, Idazkari lanpostu bat %15ean betetzeko asmoa dagoela azaltzen da. Azkenik hiltegiako langilearen egoerari buruzko informazioa ematen du.
- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu), azkeneko hirigintza lantaldean aipatu zenaren arabera Alkateari Mega Garmendia eremuan

industrialdea garatzeko aurreikuspenei buruz galdetzen dio. Eskararik egon al den galdetzen du ere. Alkateak, bilkuran azaldutakoren arabera, pabilioiaren jabearekin edukitako elkarrizketaren berri ematen du. Zentzu horretan, duela urte batzuk, Sprilurren bitartez LKS enpresak eremuaren txostena bideratu zuela adierazten du eta horretan eremua uholde-gunean dagoela ikuskatu zen. Horrenbestez, bideragarriak izan daitezkeen aukerak aztertzeke, Sestra enpresari txosten eguneratu bat eskatu zaiola adierazten du, horren arabera, uholde-gunea pabilioiak metro bat eta erdi altxatuz saihestuko litzateke. Bilkurakideak gaiari buruz eztabaidatzen dute, pabilioia bota ezkerro burutu beharreko garbiketarak, Sprilurren partaidetza, etab. azalduz.

- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu) adierazten du, Maratoiko dortsal banaketan inguruan kexa bat jaso duela adierazten du, kanpoan bizi diren Zegamarrei dortsala erreserbatuko ez zaiela dela eta. Alkateak adierazten du gai horretan udalak ez duela parte hartu, eta horrenbestez, kexa horiek direla eta, aurrekoan edukitako bilera batean, **hurrengo ekitaldiatarako** irizpidea egokitzea adostu zen. Horrenbestez, herritar bezala kontsideratuko dira 15 urtez Zegaman erroldatutako egon direnak. Zegaman erroldatutako daudenekiko, gutxienez urtebeteko erroldatzea eskatuko da. Era berean, bilkurakideak adierazten dute, izena ematen duten zegamatarrei, garaiz parte hartuko ez dutela badakite, antolatzaileei jakinarazteko eskatuko zaiela, horren bitartez hutsik geratzen diren dortsalak banatu ahal izateko.
- Imanol Garmendia Iruretagoiena zinegotziak (EH Bildu) Zegamako Arau Subsidiarioen eguneraketaz galdetzen du, idatzi zirenetik iragan den denbora kontuan izanik legez berri behar diren galdetuz. Idazkariak adierazten du, formalki araudi berrien testu-ingurura egokitu beharko litzatekeela, nolana ere, eguneraketa hori, araudien azterketa eta aldaketa batekin lotzea komeniko litzatekeelarik azalduz. Bilkurakideak gaia aztertuko dela adierazten dute.
- José Luis Azurmendi Larrea zinegotziak (EH Bildu) saskibaloi jokalaririk batzuk frontoiko kaxa erabiltzeko aukeraz galdetu diotela dio. Alkateak, guraso elkarteari erantzundako modu berean erantzun beharko zaiela adierazten du.
- Bilkurakideak, Koronabirusari buruz jasotzen ari diren azkeneko berriei buruz hitz egiten dute.

Aztertzeke gai gehiago ez dagoenez, hasieran aipatutako eguneko zapiak eta hogeitabost minutu direnean Alkateak bilkurari amaiera ematen dio, esandakoa jasozazteko, nik egiaztaturiko eta Alkateak sinaturiko akta hau egiten dudalarik.

Eginbidea.

Aurrean transkribaturiko akta, orri dituela jasotzeko, zenbakidun paperan zenbakitik zenbakira eta Udalak emandako zenbakietan, zenbakitik zenbakira jasota geratu delarik.

Zegama, 2020kok

O.E./ VºBº
ALKATEAK/EL ALCALDE

Diligencia.

Para hacer constar que el acta que antecede tiene folios, numerados del al en número de papel timbrado y del al en numeración dada por el Ayuntamiento.

Zegama a de de 2020.

IDAZKARIAK/ EL SECRETARIO